

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

**IRAKASLEA:** Xabier Erkizia. <https://erkizia.audio-lab.org>

**DATA:** 2021eko martxoa-maiatza

**AZALPENA:** Hitza itzuli eta hitz-egiteaz baino hitz-jasotzean gertatzen diren fenomen kultural eta emozionalak modu kritikoan aztertu eta ikertzea izan zen ikastaro honen helburu nagusia. Hitzak erabili gabe zer, nola eta zergatik kontatu daiteken, eta ariketa horiek suposatzen duten erroka edo ulertezintasuna praktikan jarriz, Adi-tze, adi-men eta adi-era aberatsetara iristeko bideak ikertu genituen.

### AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

#### 1. Saioa

Zeri deitzen diogu Entzumenaren kultura?

#### 2. Saioa

Entzumenaren arkeologia: Partekatzen dugun entzumenari lotutako iruditeriaren iturriak.

#### 3. Saioa

Entzumen areagotzak: ikuspuntutik mikrofoniarara, margotik bozgorailuetara.

#### 4. Saioa

Saio praktikoa: grabagailuak eta mikrofonoak (1)

#### 5. Saioa

Saio praktikoa: grabagailuak eta mikrofonoak (2)

#### 6. Saioa

Saio praktikoa: Edizioa

#### 7. Saioa

Saio praktikoa: Ariketen entzunaldi kritikoa

#### 8. Saioa

Saio irekia: Belarri jana. 8 orduko entzunaldi saio jarraia

**1. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Zeri deitzen diogu Entzumenaren kultura? edo ba al da horrelakorik? Alfabetizazioa gure gizartean zabaldu aurretik, adituz jasotzen genituen jakintzak, baina gaur egun begiradaren gaineran eraikitako kultura batean bizi gara. Zer kontraesanen aurrean jartzen gaitu egoera horrek?

Lehen klase honetan, gure entzumenaren lehenaldia, biologiak entzumenarekin duen lotura eta hauen aurrean hartzen ditugun jarrerak aztertu genituen. Historian atzera eginez, euskarazko lehenbiziko grabaketak, herrialde pre-industrialetako kultura ez idatziak, Walter Murch zinema muntatzaile eta soinu diseinatzailearen entzumenari eta isiltasunari buruzko zenbait aipu eta gure hurbileko kultur inguruneko beste zenbait soinuren bidez, entzumenaren arkeologia ariketa bat egin genuen.

Saioaren helburua landutako oinarritzko kontzeptuetatik abiatuta eztabaida/elkarrizketa luze bat ezartzea izan zen, ikastaro osoan zehar beti bizirik jarraituko zuena eta oso parte hartzailea izan zena.

**2. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Lehenbiziko saioan utzitako leku berberetik hasi zen bigarren saioa ere, baina bertzelako praktika eta errepresentazio bideri arreta jarritz: Hizkuntzaren sorrera eta entzumenak umeen sorrera hortan jokatzen duen papera aztertu genuen Eva Gioloren edo François Truffaut-ren pelikuletako hainbat zati aztertuz.

Ahotsak mundua azaltzeko eta ukitzeko dituen ahalmenak pentsatzeko ariketa hortatik ahotsak eta orokorrean entzumenak geografiarekin dituen loturak ikertu genituen Marco Polo eta Franco Farinelliren testuak eta teoriak berrirakurriz.

Klase honen helburua soinuak errepresentatzeko moduak norainoko dimentsioak har ditzazken ikastea eta pentsatzea izan zen, margoak bezalako errepresentazio isiletan iradokitzen diren soinuzko errealitateek gure mundua geografikoki ulertzeko moduetan izan duten eraginaren arreta berezia jarritz.

**3. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Hirugarren saioan, aurrekoetan bezala, hari berari tiraka jarraitu genuen. Oraingoan media silenteak entzuten jarri ginen, zehatzago izateko margoak entzuten. Soinuak eta aditzeko moduak margoetan nola errepresentatu izan diren aztertu genuen, garai ezberdinetako artisten, (Brueghel, Magritte, Vermeer edo Arteta) lanak adibide gisa hartuz. Margoa begia anplifikatzeko teknologia bezala ulertuz gero, belarriak haratago edo urrunago eramateko metodoak eta ariketa artistikoak aztertu genituen, field recording edo fonografiaren alorrean lan egiten duten hainbat artista experimentalen lanen entzunaldi sendoen bidez.

Ariketa honen bidez alor artistiko ezberdinetako partaideek beraien proiektuak pentsatzen hasteko adina lanabes landu genituen, jakinik hurrengo klaseak jada alor praktikoagoa izango zutela.

**4. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Lehenbiziko Saio praktikoan soinuak idazteko teknika ohikoen sarrera bat osatu genuen. Mikrofonoak zer diren, nolakoak dauden, zertarako eta nola erabiltzen diren, grabagailu motak, grabatzeko teknikak, ezohiko mikrofoniak...

Partaide batzuk oinarrizko jakintza batzuk bazituzten ere, gehienek ez zuten soinua grabatzeko tekniken berririk.

Saioaren amaieran partaideek lehenbiziko grabaketa saiakerak egiteko modua izan zuten, eta hurrengo saiorako gutxienezko helburu batzuk jarraituz, lehenbiziko ariketak egiteko lana eraman zuten etxera.

**5. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bigarren saio praktikoan, lehenbizikoan landutako tekniketara sakontzen joan ginen. Bereziki, lehenbiziko esperientzien ondotik sortutako zalantzak argitzen saiatu ginen. Saioaren bigarren zatian, partaideek beraien proiektuetan lanean jarraitu zuten, irakasle eta partaideen arteko bat banakako saioak antolatuz.

**6. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Hirugarren saio praktikoa eta edizioari eskainitako lehenbizikoa. Saio honetan, soinua editatzeko sistema digitalen oinarrizko kontzeptuak, teknikak eta lanabesak landu genituen. Nagusiki AUDACITY softwarea erabili genuen hortarako, ez soilik librea delako, eskaintzen dituen baliabide eta aukera sortzaileengatik baizik. Edizioaren lehen pausuez gain, efektuak eta orokorrean soinua prozesatzeko oinarrizko lanabesak (ekualizazioa, konpresioa, erreberberazioa, normalizazioa...) ezagutu genituen.

Saioaren bigarren zatian, aurrekoan bezala, bat banakako saioak antolatu genituen, partaideen proiektuetan gehiago sakontzeko, eta kasu batzuetan proiektu ezberdinen artean aukeratzen hasteko. Partaide batzuk, jada lehenbiziko laginak erakutsi zituzten.

**7. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Edizio lanen zalantza gehiago argitzeko klasea. Partaideek beraien lanak erakutsi eta taldean entzun genituen. Partaide bakoitzaren zalantzak taldean aztertu eta eztabaidatu genituen. Saio oso garrantzitsua izan zen, lehen aldiz taldeko partaideek beraien lanei aurre egin eta bereziki bere kideen kritikei erantzun ahal izan zutelako. Saio honetan aurkezpen publikoa ere diseinatzeko para hartu genuen, amaitutako lanak bildu eta poliki poliki entzunaldi luze hortarako pausuak emanez.

**8. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

BELARRI JANA izena jarri genion ikastaroari amaiera emango zion ekitaldiari. Gogoratu behar dugu oraindik COVID-19aren mugak indarrean zeudela, eta horrek orokorrean ikastaroa nahasi zuen arren (datak behin baino gehiagotan aldatu behar izan genituen, klase bat galdu genuen ere bidean...) jendea irekitako emanaldia antolatzeko arriskua hartu genuen. Ideia ximplea zen: Dinamoko Areto bat entzunleku bihurtzea, 8 orduko entzunaldi luze batekin. Ordu horietan munduko hainbat soinu, arte lan eta musika pieza entzun ahal izan ziren eta erdian partaideek konposatutako soinu piezen ordubeteko collagea.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

Audioa: *Azoulay, Leon-hizlari anonimoak*. Euskarazko lehenbiziko soinuak (1900)

Audioa: *Lian Nain*. Fatulia, Laclolema, Timor Leste. RONA MAUBERE, audio-lab.org (2009)

Audioa: *Emakume ezezaguna*, Likisa, Timor Leste. RONA MAUBERE, audio-lab.org (2009)

Audioa: *Etxalarko usozaleak*, HITZA BASA, [audio-lab.org](http://audio-lab.org) (2020)

Audioa: *Xabier Erkizia* Agoitz Larrialdi testa (2009) [SOINUMAPA.NET](http://www.soinumapa.net)

[http://www.soinumapa.net/wp-content/uploads/agoitz\\_02.mp3](http://www.soinumapa.net/wp-content/uploads/agoitz_02.mp3)

Audioa: *Michael Pisaro*, Fields have ears (2019)

<https://anothertimbre.bandcamp.com/album/fields-have-ears>

Audioa: *Toshiya Tsunoda*, O kokos tis anixis - Grains of spring (2013)

Audioa: *Slavek Kwi*, Organ fish (2013)

Margoa: *Jan Brueghel Zaharra, Peter Paul Rubens*, Belarriaren zentzua (1618)

[https://es.wikipedia.org/wiki/El sentido del o%C3%ADdo](https://es.wikipedia.org/wiki/El_sentido_del_o%C3%ADdo)

Margoa: *René Magritte*, La Chambre d'Écoute (1952) [https://en.wikipedia.org/wiki/The\\_Listening\\_Room](https://en.wikipedia.org/wiki/The_Listening_Room)

Margoa: *Aurelio Arteta*, El acordeonista, 1938 <https://bilbaomuseoa.eus/obra-de-arte/el-acordeonista/>

Bideoa: *A Conversation with Walter Murch* <https://youtu.be/ZZLgo65KdrU>

Bideoa: *Walter Murch about silence* <https://youtu.be/GfHtQnCV08c>

Zinema: *Eva Giolo*. A Tongue called mother (2019)

Zinema: *Guy Sherwin* Messages (1983) <https://film-makerscoop.com/catalogue/guy-sherwin-messages>

Zinema: *Lawrence Abu Hamdan*, Walled Unwalled (2018) <https://youtu.be/Ry4jU85o8pE>

Zinema: *François Truffaut*, L'Enfant sauvage (1969)

Zinema: *Marcus Coates*, Dawn Chorus (2007) <https://www.marcuscoates.co.uk/projects/68-dawn-chorus>

Zinema: *Toshio Matsumoto*, Funeral Parade of Roses (1969)

Liburua: *Jacques Attali* Ruidos (1977)

Liburua: *R. Murray Schafer*, El Paisaje Sonoro Y La Afinación Del Mundo (1977)

Liburua: *Franco Farinelli*, La razón cartográfica o el Nacimiento de Occidente (2005)

Liburua: *Marco Polo*, Libro de las maravillas (XIII. Mendea)